

***OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA***  
**IV.LIBURUKIAREN AURKEZPENA**



## **OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA**

### **IV.LIBURUKIAREN AURKEZPENA**

*Iruñea, 1990-XII-13*

#### **Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren hitzak:**

Ingazko liburu eta Dizko Azokan, 1989-ko abenduaren 7.an *Orotariko Euskal Hiztegiaren* hirugarren liburukia aurkeztean hitza eman genuen laugarren liburuki hau Iruñean aurkeztuko genuela. Guretzat hitza hitz baita, kunplitzen dugu hitzemana eta hemen gaude, Iruñean, egun.

Hori nahi nuen argi eta garbi utzi.

*Orotariko Euskal Hiztegia* da, dudarik gabe, Euskaltzaindiak dituen lanetan premiatsuenetarik bat. Bere arautegiak haxe aitortzen du:

C/ Hiztegia biltzea.

Beraz, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* laugarren liburukia aurkeztean, betetzen du Euskaltzaindiak daukan xedeetarik bat. Koldo Mitxelena-ren ardurapean hasi zen lana eta lan horretan segitzen du orain Ibon Sarasola gura euskaltzain kideak talde batekin. Nafarroan garenez gero nahi nuke azpimarratu talde horretan sartuak direla bi nafartar, Gabriel Fraile eta Eduardo Valencia. Eskerrak nahi dizkiet eman bai Ibon Sarasolari eta talde guztiari, hain artoski lanean ari direlakotz, fruitu aberatsa gure aurrean dugularik.

Eskerrak ere Nafarroako Gobernuari. Oroiterazten dut, duela urte bat baino gehixeago, Oñatin, 1989.ko urriaren 7.an sinatu zuela Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru-Aldundiekin Hitzarmen bat aberatsa. Lokarri bat sortu da Euskal Herriko agintarien eta Euskaltzaindiaren artean. Agintarien ganik heldu zaigu behar den dirua, Euskaltzaindiak ordainez eskaintzen du bere jakituria. *Orotariko Euskal Hiztegia* da Euskaltzaindiak bere batzorde baten bitartez Euskal Herriari egiten dion oparia.

Nere eskerrik beroenak bai Agintari guztiei ematen diguten diru laguntzaren gatik, bai *Orotariko Euskal Hiztegi*ko langileei.



## **OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA / DICCIONARIO GENERAL VASCO**

*Laugarren liburukia aurkeztean*

*Iruñea, 1990-XII-13*

*Ibon Sarasola  
Hiztegitzako batzordeburua*

Sr. Consejero,  
Mahaiburukoak,  
Jaun-Andreak:  
egunon.

Bozkario berezi bat ematen dit, *Orotariko Euskal Hiztegia*, hemen, Nafarroan, Iruñean, aurkezteak.

Bi aldetatik. Lehendabizi, lehen J. Haritschelhar jaunak esan duen bezala, Hiztegi honetan lanean ari diren taldeko bi, hain zuzen, nafarrak direlako, Gabriel Fraile eta Eduardo Valencia; nafarrak, Nafarroako euskaldunak, Nafarroan bertan, euskara berreskuratu zutenak. Nafarroako hizkuntza berreskuratu zutenak. Eta beste alde batetik, Nafarroak toki berezi bat betetzen duelako euskararen historian, eta alde honetatik, gure Hiztegiaren zereginetan. Gure Hiztegian, Erdi Aroko, Erdi Aroan edo Erdi Aroari dagokionez erabiltzen dugun material ia guztiak, Nafarroari dagozkio, jende guztiak dakien bezala. Eta are gehiago, eman dezagun XVIII. mendearen erdi aldea arte edo, ez ditugu Hegoaldean, Beriayn bezalako autoreak. Esan nahi dut, beraz, Larramendi aurreko euskal literaturan, are Hegoaldekoan, pisu handia dutela Nafarroako testuek, Satrustegi euskaltzainak, adibidez, *Euskal testu Zaharrak (I)* liburuan bildu dituenak.

Beraz, bi alde horietatik, Nafarroak badu halako lotura berezi bat Hiztegiarekin eta, bidezkoa da, nik hori adieraz dezadan.

Hiztegiari berari buruz, hitz egiten hasteko, lehendabizi, adierazi nahiko nukeena zera da: zertara datorren, Hiztegia. Hainbat hiztegi dagoen Herri honetan, zertara dator Hiztegi berri hau?

Horretarako, nik uste dut, komeni dela, historia apur bat egitea. Euskal hiztegitzaren historia apur bat egitea.

Oraindik orain, dakigun bezala, euskal hiztegi nagusia, R. M<sup>a</sup> Azkuerena da. Gaur egun arte egin diren hiztegi guztien oinarria. Eta Azkueren hiztegiak, jakina

den bezala, ba ditu bere akatsak. Lehendabizi, orain dela ia ehun urte burutu zela. Eta denbora ez da alferrik pasatzen. Ezta gure artean ere. Beste alde batetik, Azkue ez zela profesionala, hiztegegintzan. Euskaltzale bat zen, euskaltzale suharrak; baina hiztegegintzan ez zen profesionala. Eta hori, ba, nahitaez, igerri egiten da.

Beste alde batetik, berak, euskera guztia deskribitu nahi bazuen ere, ez zuen euskara guztia deskribitu; alde batetik, garbizalea zelako; eta, beste alde batetik, beharbada, horregatik beragatik, literatur tradizioa ez zuelako behar adina aintzat hartzen. Beraz, bi alde hauetatik, gutxienez, euskararen hiztegia, Azkueren *Euskal Hiztegia*, ez da hiztegi oso bat. Horiekin loturik, gainera, Azkuek ba zuen halako zaletasun bat, bitxikeriei buruz, esan nahi dut; hemen edo han, bazterren batean jasotzen ziren eta bazter batekoak, bakarrik, ziren hitzak jasotzeko. Horren guztiorren ondorioz, inork ez du ukatzen, Azkueren Hiztegia, hiztegi on bat, hiztegi, erabat, bikaina denik; baina, batez, ere gaur, XX. mende honen bukaeratik gauzak ikusita, hutsuneak ditu, hutsarteak ditu, eta, are akatsak ditu. Eta Azkuez gero, mende honetan egin den hiztegegintzan, ez dira gauzak erabat konpondu. Esan nahi dut, ondorengo hiztegegintza, bide horretatik joan da batez ere: bitxikeria gehiago jasotzeko bidetik. Ondorioz euskal hiztegegintzak ez du bildu euskararen hitz ondarearen osotasuna.

Egoera honen aurrean, euskal Erakundeek aginduz, *Orotariko Euskal Hiztegiari* ekin genioenean, hau guztiau kontuan hartu behar izan genuen. Orduan, gure lana, zer izan zen? Koldo Mitxelena hogeitabost urtetako lana genuen, alde batetik; baina, Koldo Mitxelena, berak, Hiztegiaren zuzendariak, oso argi ikusten zuen egoera horretan, eta batez ere, gaur egun, euskaraz egin behar zen hiztegi batek, beste zerbaitek behar zuela. Eta, beste hori, zer zen? Euskal literatur tradizioaren biluzte oso eta orekatu bat. Eta horregatik, egin genuen lehendabiziko lana hori izan zen: euskal literatur guztia hartu eta literatura horretako obrarik garrantzitsuenak berezi. Hirurehun bat obra izan ziren hautatuak. Eta hirurehun obra horiek, informatika bidez, tratatu genituen. Horrela, lau milioi t'erdia testu-hitz lortu genituen; garai guztietakoak, euskalki guztietakoak eta hizkuntza erregistro guztietakoak. Adibidez, Nafarroari dagokionez, ikus ezazue, zer bildu genuen. Koldo Mitxelena *Textos arcaicos vascos*en Nafarroari buruz datorren material guztia; eta *Textos arcaicos vascos*, batez ere, Nafarroako materialak dira... Gero Arzamendiren tesian osatzen direnak. Eta lehen esan dudan bezala, J. M. Satrustegien *Euskal testu zaharrak (I)* liburuan sartzen direnak. Hori guztiori, erabat, kontrolatua dugu; eta baita ere, Beriaynen bai *Doctrina Cristiana en Castellano y Bascuence*, Pamplona, 1626 eta bai *Tratado de como se ha de oyr missa*, Pamplona, 1621 direlakoak; lehendabiziko sermoi nafarrak; Francisco Elizalderen *Apezendaco doctrina Christiana uscaras*. Iruñea, 1735; J. Lizarraga Elkanokoaren obra guztiak, eta ez dira gutxi, gaur egun, gainera, F. Ondarra euskaltzainari esker ondo ezagutzen ditugunak; P. A. Añibarroren *Cristau Dotriña*, Pamplona, 1802; Baztango eta Luzaideko *Kateximak*; Bordelen obrak; Echeniqueren itzulpen guztiak, P. Salaburu euskaltzainaren lanari esker eskuratu ditugunak; Aezkoako, Zaraitzuko, Erronkariko *Kristau ikasbideak*, L. L. Bonaparteri esker argitaratu zirenak; eta, Bonaparteri esker argitaratu ziren, ere, bai Erronkariko Prudencio Hualde Mayo-ren *Evangelio de San Mateo traducido al vascuence roncalés*, eta, era berean, P. J.

Samperen itzulpena, Ebanjelio berarena; halaber, D. Legazen *Cristauaren Icasbi-dea Aita Gaspar Astetec egina*, Iruñea, 1880; eta A. Campionen *Orreaga*, Nafarroako euskalki eta azpieuskalki guztietan argitaratu zena.

Hortik aparte, Inza, Aita Iraizoz, Fermin Irigaray... Beraz, nik uste dut, Nafarroa, gure materialetan, nahiko errepresentatua agertzen dela. Bestelde, noski, ahozko edo lekukotasunak ere bildu ditugu: bai Koldo Mitxelenak, berak, Nafarroan egin zituen inkestetan eta bildu zituenak, edo, hor zehar argitaratu direnak; adibidez, Azpirozena, Leitzari buruz; Candido Izagirrerena, Erronkariri buruz; edo Zaraitzuri buruz argitaratu direnak.

Material guzti horrekin, nolako Hiztegia egin dugu? Lehendabizi, gure helburu nagusia zera izan da, alegia: hiztegi, ahalik eta osatuena, deskripzio ahalik eta orekatuena egitea, hizkuntzari buruz. Euskarak, hitz batzuk erabili ditu, bere historian zehar. Gu ez gara inor zer den euskal hitza eta zer ez den erabakitzeke, hori besteri dagokio. Guk adierazi behar duguna da, euskaraz euskaldunek, euskaraz hitz egin dutenean ze hitzez baliatu diren. Eta guretzat euskal hitza hori da. Eta ahalik eta osatuen, euskalkiz euskalki, eta garaiz garai, eta ahalik eta orekatuen gauza bakoitzari bere pisua ematen saiatuz. Eta horrekin batera, hitz bakoitzari bere batasuna aitortuz. Zeren, orain arteko hiztegietan, batez ere, gertatu izan dena, zera da, hitz bakoitzak halako aldaera dialektal batzuek baldin baditu, aldaera dialektal hauek, hiztegian zehar, alfabetikoki, agertzen zirela; eta, adibidez, nahiz eta *iduki*, *eduki*, *iruki* hitz bera izan hitz bakar horri buruzko informazioa laupabost tokitan, hiztegian zehar, sakabanatuta zegoen. Guretzat, euskara bat da eta euskal hitzak, aldaeren gaineratik, eta aldaera gorabehera, bat dira. Eta batasun hori egiten saiatu gara, askotan ez da gertatu batere erraza, baina hitzei batasuna ematen saiatu gara. Hortik aparte, gainerako hiztegiei buruzko aldeak nabaritzen, denboraren ardatza sartu nahi izan dugu.

Ez dira berdin, gaur egun bakarrik erabiltzen den hitz bat, eta euskararen lehen lekukotasunetatik orain arte dokumentatua dagoen hitz bat. Ez da berdin, lehen bai baina orain ez den erabiltzen hitz bat, edo lehen eta orain erabiltzen den hitza. Beraz, hori ere kontuan hartu dugu. Orduan, guztiori, edo hiru ardatz nagusi horiek, kontuan harturik, nolako Hiztegia eratu dugu? Nola eratu ditugu hiztegi honetako sarrerak?

Lehendabizi buruetan, aldaera guztiak bildu ditugu, lehen esan dudan bezala, hitz bakoitzaren aldaera guztiak. Denak batera, bata bestearen ondoren. Bat nagusiztat emanez, baina besteak ondoren dituela. Ondoren, aldaera bakoitzari dagozkion euskalki markak ezarri ditugu. Aldaera bakoitza ahoz, non erabiltzen den. Eta hortarako, berriro ere, Nafarroak berezitasuna bat du. Aurreko hiztegietan ez bezala, guretzat, Baztango euskara, Zaraitzuko euskara eta Aezkoako euskara, euskalki berezi bezala hartu ditugu... zeren, guretzat, interes handia zuten, bere nortasun horretan, eta ez zeuden ongi goi-nafarreraren barruan, hor galduak.

Hortik aparte, hiztegiileen lekukotasunak ere, sartzan saiatu gara, hitz bakoitzari eta aldaera bakoitzari buruz. Aldaera bat, hiztegiileen batek aipatzen duenean, markatzen dugu. Eta hemen, gero aipatuko dugun bezala, hemen ixiltasunak edo ixilaldiak ere adierazgarriak dira. Esan nahi dut: hitz batean, ez baldin bada adierazten, eman dezagun, Larramendiren lekukotasuna, horrek esan

nahi du aldaera hori Larramendiren hiztegian ez datorrela. Beraz, gure Hiztegian, besteetan ez bezala, ixiltasunak adierazgarriak dira. Esan nahi du delako hitz, aldaera, adiera hori ez dagoela; ez hiztegitileari ahaztu zaiola, baizik eta hori ez dagoela.

LUIS MICHELENA

DICCIONARIO GENERAL VASCO  
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

IV  
Bar - Berp



Real Academia de la Lengua Vasca  
EUSKALTZAINDIA

BILBAO 1990



Editorial Desclée De Brouwer, S.A.  
Henao, 6 - 48009 BILBAO



Ediciones Mensajero, S.A.  
Sancho de Azpeitia, 2 - 48014 BILBAO



Ondoren, definizioa ematen dugu. Definizioa erdal ordain baten bidez ematen dugu. Eta ondoren, hitzaren historia. Lehen esan dudan kontu hori betetzeko, hitza noiz agertzen den, non agertzen den, nork erabiltzen duen eta nork ez duen erabiltzen adierazten dugu. Garaiz garai eta euskalkiz euskalki. Ondoren, adibideak ematen ditugu eta adibide asko, adibide ugari. Gutxienez, kontrolatzen ditugun autoreetako, bakoitzeko adibide bat. Eta hemen ere berdin: autore jakin baten adibide bat aipatzen ez baldin badugu, honek esan nahi du, autore horrek hitz hori ez duela erabiltzen. Ondoren, esapideak eta hitz-elkartuak datoz, ahalik eta zehaztasun haundienarekin, zeren, gero esango dudan bezala, Hiztegi honek badu zer esanik, gure ustez, euskararen batasuna dela eta.

Bukatzeko, etimologiari buruz ere, ahal duguna edo dakiguna, hor zehar, uste dena, ematen saiatzen gara.

Beraz, hau guztia ikusi eta norentzat da Hiztegia? Alde batetik ikerlarientzat. Nazioarteko, eman dezagun, munduko komunitate zientifikoarentzat; eta gauza batengatik, zeren honek lagundu bait diezaiguke gure lanean, eta horetarako, harremana nahitaezkoa da. Hortik bestalde, oinarri berri bat ezarri nahi izan dugu euskal estudioetan. Orain arte euskalariak eta euskaltzaleak erabiltzen zuten oinarria nahiko murrizta zen, eta guk, batez ere lehen aipatu dudan Corpus horren bidez, zera, oinarri hori, infraestruktura hori, zabaltzen saiatu gara. Momentu honetan, adibidez, Gramatika Batzordearekin batera lanean ari gara; zeren, gure materialak, Gramatika Batzordeak ere, erabil bailitzake.

Baina, batez ere, gure lana, euskararen batasun prozesuaren barruan ikusten dugu. Eta, horregatik, egin dugu, esfortzu hau. Zergatik? Batasunak, euskararen batasunak, euskal hiztegiaren eta euskal gramatikaren batasunak, ez du nahikoa jakitea “etxe: casa” dela. Askozaz ere gauza zehatzagoak behar ditu. Batu behar ditu ez bakarrik hitzak, baizik eta esapideak ere batu behar ditu, eta esamoldeak eta esaldiak batu behar ditu.

Maila horretara jatsi behar dugu. Eta es da nahikoa, adibide bakar bat jartzeko, *bat*: “bat” dela. “Bat” nola deklinatzen den, problema oso konkretu bat, euskara batuak duen problema oso konkretua aipatzeko: zer gertatzen da “batean” eta “batetan”-en artean? Historian zehar, hori nola joan da? Hori da gure lana. Momentu honetan, euskara batuak dituen problema latz hauek, horiek konpontzeko. Ez guk konpontzeko, baizik eta konpondu behar dituenak, eta gure ustez, noski, Euskaltzaindiak konpondu behar ditu. Baina Euskaltzaindiak izan dezala hori tajuz eta ez itsumustuan konpontzeko bidea. Hori da, azken batean, gure Hiztegiaren helburu nagusia. Eta besterik ez.